

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad de Gipuzkoa

COVID -19

DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN
EGOERA ETA
BEHARRAK



AURKIBIDEA

4. or.

01 SARRERA

6. or.

02 PARTE-HARTZE FASEAREN HELBURUAK

8. or.

03 METODOLOGIA

24. or.

04 EMAITZAK DATUAK ETA BALORAZIOAK

82. or.

05 ONDORIOAK

01

SARRERA

COVID-19ak eragindako pandemiak gizarte osoa pairatzen ari garen osasun-, gizarte-, eta ekonomi-krisia ekarri du. Krisiaren larriak giza-talderik ahulenak jarri ditu jomugan, esaterako, desgaitasuna duten pertsonak; krisi garai honetan eskubideen urraketa, diskriminazio eta giza-bazterketa egoerak bizitzeko faktoreak areagotu zaizkielarik. Testuinguru honen ondorioak agerian geratu dira errealitate aldakor honen fase ezberdinetan; bai itxialdi fasearen hasieran, eta baita "normaltasun berria" ekarri zuen deseskalatze fasean ere. Nola hala, berreragertzeak ekarri dituen garai berrian.

Testuinguru honetan, COVID-19ak eragindako pandemiak arriskuan jarri ditu Desgaitasuna duten pertsoen Nazioarteko Hitzarmenak jasotzen dituen eskubideak, eta beste behin agerian geratu da Hitzarmenarekin bat datozen politika eraldatzaileak sustatzeko eta indarrean jartzeo beharra.

Zaintza sistema edo dependentzia egoera bizi duten pertsonen arreta, osasuna, erabaki-guneetan parte-hartzeko eskubidea, hezkuntza, lana, pertsonen mugikortasuna, irisgarritasun unibertsala edo bizimodu independente ereduak Hitzarmenak jasotzen dituen eta pandemia egoeran urratuta geratu diren eskubideetako batzuk baino ez dira. Desgaitasunaren esparruan bideratzen diren politikak eta hartzen diren neurriak ikuspuntu aldaketa behar dute, eta horretarako, behar-beharrezkoa da aurrez hausnarketa sakona egitea. Eta garai aproposa da horretarako.

Pandemia hasi zenetik, **elkartu** desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko ohikoa duen rola jokatu du; eragin politiko zein publikoa izan duten neurriak hartuz, baina bereziki, Desgaitasuna duten pertsoen Nazioarteko Hitzarmenak onartzen dituen eskubideen sustapenean eta defentsan.

Horrela, ohiko jardunarekin jarraitzeaz gain, hau da, holkularitza eman edota desgaitasun fisikoa duten pertsonen informazio- eta jarduera-eskaeren aurrean esku hartu, pandemiaren esparruan hartu diren erabakien berri eman dio kolektiboari, batez ere desgaitasuna duten pertsonen eskubide eta bizitza-kalitatean eragina izan dutenean. Era berean, desgaitasunaren esparruan politikak eztabaidatu eta erabakiak hartzen diren organoetan ohiko parte-hartze aktiboa mantendu da eta aldebiko bilerak egin dira eragile publiko zein pribatuekin.

Zerrendatu diren ekintza guzti horiekin batera, gizarteak eta politikariek kolektiboa ahaztu duten egoera jakin honetan, **elkartu** parte-hartze prozesu bat sustatu du desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa ikustarazteko eta ahotsa emateko. Prozesuaren xedea izan da COVID-19aren eraginez Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen errealitate berria ezagutzea eta pandemia egoeran zein behar dituzten jakitea. Parte-hartze prozesuak pandemiaren fase ezberdinak aztertu ditu: itxialdi garaia, deseskalatzea eta "normaltasun berria" eta osasun-, gizarte-, eta ekonomi-krisia areagotzeko arriskuak biderkatu dituen berreragertze fasea.

02

PARTE-HARTZE FASEAREN **HELBURUAK**

Jarraian zehazten dira COVID-19ak eragindako pandemiak sortu duen osasun-, gizarte-, eta ekonomi-krisiaren testuinguruaratu den parte-hartze prozesuaren helburuak.



1

Kolektiboa ikusezin bihurtu den testuinguru batean, desgaitasun fisikoa duten pertsonak ikusgai bihurtu eta ahotsa eman.

2

Desgaitasuna duten pertsonen eskaerak, salaketak eta proposamenak egiteko espazioak sortu. Eta noski, horretarako aukera eman.

3

COVID-19aren krisiak desgaitasuna duten pertsonen eragiten dien esparru ezberdinetan sortu dituen gabeziak antzeman eta dagokion instituzioari helarazi.

4

Desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatuz, Federazioaren erabaki ahalmenean sakondu.

5

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta gizarte inklusioa bermatzeko beharra gizarteratzeko kontzientziazio kanpaina diseinatu, beti ere kolektiboaren parte-hartzearekin.


6

Pandemiak eragindako osasun-, giza- eta ekonomia testuinguru berrian, besteak beste mugikortasun murrizketak areagotu dituen, aurrez aurreko parte-hartze eredu berritzaile eta alternatiboak sustatu.

03

METODOLOGIA

Parte-hartze prozesuaren metodologia
printzipio hauetan oinarritu da:



PARTE-HARTZAILEA. Prozesuan zehar desgaitasun fisikoa duten pertsonak parte-hartu dute. Eta haiekin batera, inplikaturik dauden eragile instituzional eta pribatuak.

DIZIPLINA ANITZAKOA. Profesionalez osatutako taldeak gidatu du prozesua. Elkarre-mugimenduetan duen esperientzia eta arlo ezberdinetan duen jakintza (gizarte mailan, maila judizialean, teknikoan, eta abar) esparrua, prozesuaren zerbitzura jarri ditu aurrez zehaztutako helburuak lortzeko.

LANKIDETZAN OINARRITUA.

Eragile publikoen eta hirugarren sektorea osatzen duten elkarrekin arteko lankidetzak sustatu da; kasu honetan, Euskadiko Hirugarren Sektoreko 6/2016 Legeak, maiatzaren 12koa, jasotzen duen bezala Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen ordezkarien artekoa.

GIZA-ESKUBIDEAK ERDIGUNEAN JARRITA.

Parte-hartze prozesuarekin, Gipuzkoa kokatu nahi izan da Nazio Batuen Erakundeak Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Hitzarmenak jasotzen dituen printzipioak eta oinarriak sustatzeko apustua egiten duen lurralde gisa.

GENERO BERDINTASUNA.


Prozesuaren baitan dauden ekintza, azterketa eta ebaluazio guztietan genero ikuspegia txertatu.

BOLUNTARIOTZA SUSTATU.

Egitasmoaren baitan dauden ekintza guztiak bideratu ahal izateko **elkarturen** boluntario-sarea martzan jartzea.

IKUSPEGI KOMUNITARIOA.

Desgaitasuna duten pertsonen erabakiteko eta egiazko inklusio lortzeko, gizarteak kontzientziatu hitzarmena erdigunean jartzea ezinbestekoa dela.



Oinarri horiek kontuan hartuta, parte-hartze prozesua **lau fasetan** garatu da:

- a) **Itxialdi garaian**, ezinbestekoak diren esparruetan sortu diren egoerak eta beharrak ezagutzeko helburuarekin: dependentzia egoera bizi duten pertsonen zaintzarako beharrak, familiarenak zein profesionalenak; osasun-zerbitzuetara sarrera; elikagaiak, medikamenduak eta lehen beharreko produktuak eskuratzea; informazio eta komunikazio teknologietara sarrera; boluntario-sarearen baliabideak; laguntza-produktuak, eta abar.

Fase honetan Federazioa osatzen duten profesionalak on-line galdetegia partekatu eta telefono deiak egin dituzte.


- b) **Normaltasun berrira iristeko deseskalatze fasean**, egoera berrira egokitutako galdetegia partekatu da: mendekotasun-egoerak, lana, hezkuntza, mugikortasuna eremu publikoan, aisialdiaz gozatzeko aukera, garraio publikoaren erabilera, instituzioen mende dauden eta desgaitasuna duten pertsonen egoera, eta abar.

Ekarpenak eta proposamenak on-line formulario bidez jaso dira, eta desgaitasuna duten pertsonak, horrela eskatu dutenean, Federazioko profesionalen laguntza jaso dute. Bigarren fase honek izaera kualitatiboagoa izan du.

- c) **"Normaltasun berrian"**, zehar, desgaitasunaren esparruan jasotzen diren politika publikoak eraldatzeko proposamenak landu dira. Horretarako, aurreko bi fasetan jaso diren desgaitasuna duten pertsonen eskubide eta bizi-kalitate urraketak aztertu dira.

Horretarako, bideokonferentzia bidez on-line bideratu den parte-hartzaile tailerra antolatu da. Parte-hartzaileek pandemiak eragin dituen esparruak izan dituzte eztabaidagai: etxeko zaintzak, egoitzetako egoera, bizimodu independentea, osasuna eta pertsonen partaidetza erabaki guneetan.

- d) **Gizarteratze kanpaina**, parte-hartze prozesuak utzi dituen emaitzen ondorioak jasotzeko. Helburua da pandemiak eragindako eskubide urraketak gizarteratzea eta desgaitasunaren esparruan hartzen diren politika publikoak eraldatzeko beharra eztabaida publikoan jartzea.



Lehenengo bi fasetan, pandemiaren testuinguruan ezarri ziren mugikortasun mugak aintzat hartuta, parte-hartzea **on-line jarritako formularioen** bidez antolatu da. Bi modu hauetara gauzatu da:


- a) Itxialdi garaian, Federazioko lantalde teknikoak egindako deiekin eta desgaitasuna duten pertsonen euren kabuz betetako formularioekin bideratu da. Guztira, desgaitasuna duten 304 pertsonen erantzun dute formularioa.
- b) "Normaltasun berria", desgaitasuna duten pertsonen osatutako formularioekin bideratu da. Fase honetan 100 pertsonen hartu dute parte.

On-line jarritako formularioak desgaitasuna duten pertsonengana helarazteko jarraian zehazten diren bideak erabili dira:

- E-posta.
- **Elkartu**ko web orrialdea.
- Sare sozialak (Facebook eta Twitter).
- Federazioa osatzen duten elkarteak.
- Telefono deiak.

Hirugarren fasea, berriz, on-line egin da, bideokonferentziaz, **parte-hartze tailer** batekin. Hogeita hamar bat pertsonen parte-hartu dute, talde txikitik banatuta, eta aztergai jarri diren gaien inguruko eztabaidak egin dira. Oraingo honetan deialdia pertsonalizatua izan da, eta saiora bigarren fasean proposamenak eta ekarpenak egin dituzten pertsonak gonbidatu dira.

Laugarren faserako ikusentzunezko materiala sortu da, parte-hartze tailerrean eztabaidatu diren gaiekin. Ikusentzunezko piezak sare sozialetan zabaldu dira. Era berean, komunikabideei parte-hartze prozesuaren berri eman zaie, fase bakoitzaren xehetasunak azalduz eta fase bakoitzean sortu diren mezuak helaraziz.



On-line bidez zabaldu diren formularioen edukiaren inguruan,
jarraian zehazten dira landutako gaiak eta alderdiak:

ITXIALDI GARAIKO FORMULARIOA

1. Residencia habitual / Ohiko bizitokia
 - Domicilio particular / Etxebizitza partikularra
 - Centro Residencial / Egoitza

2. Si resides en domicilio particular, señala el núcleo de convivencia / Etxebizitza partikularran bizi bazara, adierazi bizikidetza unitatea
 - Solo/a Cónyuge o pareja / Bakarrik
 - Hijos/as / Senar-emaztea edo bikotea
 - Padres / Gurasoak
 - Asistente personal / Laguntzaile pertsonala
 - Otros / Bestelakoak


3. Si resides en domicilio particular, señala qué servicios o prestaciones recibes / Etxebizitza partikularran bizi bazara, adierazi jasotzen dituzun zerbitzu edo prestazioak
 - Prestación de cuidados en el entorno familiar / Familia inguruneko zaintzarako prestazioa
 - Prestación para la contratación de asistente personal / Laguntza pertsonala kontratatzeko prestazioa
 - Servicio de ayuda a domicilio / Etxez-etxeko laguntza zerbitzua
 - Telealarma / Telealarma
 - Programa de vida independiente / Bizimodu independienterako programa
 - Centro de día / Eguneko zentrua

4. Si resides en domicilio particular y recibes cuidados familiares, señala las siguientes cuestiones / Etxebizitza partikularran bizi eta familiaren zaintzak jasotzen badituzu, adierazi hurrengo galderak
 - ¿Alguno/a de los/las familiares que te prestaban asistencia ha visto su salud afectada como consecuencia de la crisis sanitaria? / Laguntza ematen zizun senideren bat kaltetua izan da bere osasunean krisiaren ondorioz?
 - ¿Has tenido que acudir a algún otro recurso de asistencia que no tenías antes de la crisis sanitaria? / Osasun krisiaren aurretik ez zenuen beste baliabide batera jo behar izan duzu?

-
5. Si resides en domicilio particular y recibes el servicio de ayuda a domicilio, señala las siguientes cuestiones / Etxebizitza partikularan bizi eta Etxez-etxeko laguntza zerbitzua jasotzen baduzu, adierazi hurrengo galderak
- ¿Recibes el servicio en las mismas condiciones que antes de la crisis? / Zerbitzua krisiaren aurretik zenituen baldintza berdinetan jasotzen duzu?
 - ¿El servicio ha ampliado las horas de atención? / Arreta orduak haunditu ditu zerbitzuak?
 - ¿El servicio cubre ahora actividades que no cubría antes de la crisis (por ejemplo, hacer la compra, farmacia, etc.? / Krisiaren aurretik jasotzen ez ziren jarduerak betetzen ditu orain zerbitzuak (adibidez, erosketak, farmazia, etab.)?
 - ¿Se ha producido una variación no habitual en los/las profesionales que acuden a tu domicilio? / Zure etxebizitzara doazen langileen ez ohiko aldaketa eman da?
 - ¿El personal que acude a tu domicilio cumple con las condiciones de seguridad exigidas en la crisis sanitaria? / Zure etxebizitzara doazen langileek osasun krisian ezarritako segurtasun neurriak betetzen dituzte?
-
6. Si resides en domicilio particular y tienes asistente personal, señala las siguientes cuestiones / Etxebizitza partikularan bizi eta laguntzaile pertsonala baduzu, adierazi hurrengo galderak
- ¿Recibes el servicio en las mismas condiciones que antes de la crisis? / Zerbitzua krisiaren aurretik zenituen baldintza berdinetan jasotzen duzu?
 - ¿Has ampliado las horas de asistencia personal? / Laguntza pertsonalaren orduak haunditu dituzu?
 - ¿La asistencia personal cubre ahora actividades que no cubría antes de la crisis (por ejemplo, hacer la compra, farmacia, etc.? / Krisiaren aurretik jasotzen ez ziren jarduerak betetzen ditu laguntza pertsonalak (adibidez, erosketak, farmazia, etab.)?
 - ¿Has tenido que modificar el/la asistente personal? / Laguntzaile pertsonala aldatu behar izan duzu?
 - ¿El personal que acude a tu domicilio cumple con las condiciones de seguridad exigidas en la crisis sanitaria? / Zure etxebizitzara doazen langileek osasun krisian ezarritako segurtasun neurriak betetzen dituzte?
-
7. Si eres usuario/a de un centro residencial, señala las siguientes cuestiones / Egoitza baten erabiltzailea bazara, adierazi hurrengo galderak
- ¿Recibes el servicio en las mismas condiciones que antes de la crisis? / Zerbitzua krisiaren aurretik zenituen baldintza berdinetan jasotzen duzu?
 - ¿Existen menos profesionales en el centro que antes de la crisis? / Krisia aurretik baino profesional gutxiago daude egoitzan?
 - ¿El personal cumple con las condiciones de seguridad exigidas en la crisis sanitaria? / Profesionalek osasun krisian ezarritako segurtasun neurriak betetzen dituzte?
 - ¿Desearías hacer uso de la posibilidad de regresar al domicilio familiar mientras dure la crisis del covid-19? / Covid-19 krisia irauten duten bitartean, zure etxebizitzara itzultzeko aukera erabili nahiko zenuke?
-

8. Otras cuestiones / Bestelakoak

- ¿Has recibido la llamada de los servicios sociales municipales interesándose por tu situación o necesidades? / Udal gizarte zerbitzuen deia jaso duzu zure egoera edo beharrak ezagutzeko?
 - ¿Recibes el apoyo de voluntarios/as para realizar algún tipo de actividad? / Bolondresen laguntza jasotzen duzu jardueraren bat egiteko?
 - ¿Tienes dificultades para realizar la compra de alimentos? / Janari-erosketak egiteko arazoak dituzu?
 - ¿Tienes dificultades para adquirir medicamentos? / Botikakeskuratzeko arazoak dituzu?
 - Si has sufrido algún problema con tus productos de apoyo (silla de ruedas, grúa, etc.), ¿has podido recibir el servicio adecuado? / Zure laguntza produktuetan (gurpil aulkia, garabia, etab.) arazoren bat izan baduzu, konpontzeko zerbitzu egokia jaso ahal izan duzu?
 - ¿Consideras que tienes dispositivos y medios tecnológicos suficientes (televisión, ordenador, etc.) para cubrir tus necesidades de información y ocio? / Zure informazio eta aisialdi beharrak asetzeko baliabide teknologikoak dituzula uste duzu?
-



FORMULARIO EN LA FASE DE "NUEVA NORMALIDAD"

Nombre / Izena

Apellidos / Abizenak

Email /Emaila

Población / Herria

1. Si recibes **cuidados familiares**, ¿la crisis está afectando de alguna manera la atención que recibes? / **Senideeen zaintzak** jasotzen badituzu, arretan eraginik izan al du krisiak?

- No recibo / Ez dut jasotzen
- Sí recibo, pero no se ha producido variación / Bai jasotzen dut, baina ez da aldaketarik egon
- Sí recibo, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai jasotzen dut, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a tus cuidadoras/es familiares, problemas que se puedan producir, como puede afectar a los cuidados futuros, etc. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak zure senide-zaintzaileei, sortu daitezken arazoak, etorkizuneko zaintzetan izan dezaken eragina, etab. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

2. Si recibes el **Servicio de Ayuda a Domicilio**, ¿la crisis está afectando de alguna manera la atención que recibes? / **Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua** jasotzen baduzu, arretan eraginik izan al du krisiak?

- No recibo / Ez dut jasotzen
- Sí recibo, pero no se ha producido variación / Bai jasotzen dut, baina ez da aldaketarik egon
- Sí recibo, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai jasotzen dut, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 al Servicio de Ayuda a Domicilio, problemas que se puedan producir, etc. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuan, sortu daitezken arazoak, etab. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

3. Si recibes la **Prestación de Asistencia Personal** o participas en el **Programa de Vida Independiente**, ¿la crisis está afectando de alguna manera la atención que recibes? / **Laguntza Pertsonalerako Prestazioa** jasotzen baduzu edo **Bizimodu Independientearen Programan** hartzen baduzu parte, jasotzen duzun arretan eraginik izan al du krisiak?
- No recibo / Ez dut jasotzen
 - Sí recibo, pero no se ha producido variación / Bai jasotzen dut, baina ez da aldaketarik egon
 - Sí recibo, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai jasotzen dut, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a la Prestación de Asistencia Personal o el Programa de Vida Independiente, problemas que se puedan producir, etc. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak Laguntza Pertsonalan edo Bizimodu Independientearen Programan, sortu daitezken arazoak, etab. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

4. ¿Has tenido que solicitar algún **servicio o prestación que no recibías hasta ahora**, por razón de la crisis del Covid-19? / **Orain arte jasotzen ez zenuen zerbitzu edo prestazioren bat** eskatu behar izan duzu Covid-19ak eragindao krisiaren indoarior?
- No / Ez
 - Sí / Bai

Señala qué servicio o prestación has solicitado / Adierazi eskatutako zerbitzu edo prestazioa

5. Si eres usuario/a **de un centro de día** para personas con discapacidad, ¿la crisis está afectando de alguna manera la atención que recibes? / Desgaitasuna duten pertsonentzako **Eguneko Zentru** baten erabiltzailea bazara, jasotzen duzun arretan eraginik izan al du krisiak?
- No / Ez
 - Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
 - Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a la atención que recibes, las actividades del Centro, etc. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak jasotako arretan, Zentruaren jardueretan, etab. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

6. Si eres usuario/a de un **centro residencial** para personas con discapacidad, ¿la crisis está afectando de alguna manera la atención que recibes? / Desgaitasuna duten pertsonentzako **Egoitza** baten erabiltzailea bazara, jasotzen duzun arretan eraginik izan al du krisiak?
- No / Ez
 - Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
 - Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a la atención que recibes, la posibilidad de salidas, etc. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak jasotako arretan, irteeretan, etab. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

7. Si estás **estudiando** (educación obligatoria, universidad, formación profesional, cursos, etc.), ¿la crisis está afectando de alguna manera? / **Ikasten** ari bazara (derrigorrezko hezkuntza, unibertsitatea, lanbide heziketa, ikastaroak, etab), eraginik izan al du krisiak?
- No estudio / Ez dut ikasten
 - Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
 - Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse en adelante / Bai, eta aldaketaren bat egon da edo egon daitekela iruditzen zait

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a tu formación. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak zure hezkuntza prozesuan. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

8. Si estás **trabajando**, ¿la crisis está afectando de alguna manera? / **Lanean** bazaude, eraginik izan al du krisiak?
- No trabajo / Ez nago lanean
 - Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
 - Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse en adelante / Bai, eta aldaketaren bat egon da edo egon daitekela iruditzen zait

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a tu trabajo. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak zure lanean. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

9. Si percibes alguna **pensión o prestación social** (pensión no contributiva, prestación por hijo a cargo, pensión de incapacidad permanente, RGI, etc.), ¿la crisis está afectando de alguna manera? / **Pentsio edo prestazio sozialen** bat jasotzen baduzu (kotizatu gabeko pentsioa, seme-alabak dituzten familientzako prestazioa, ezintasun iraunkor pentsioa, DBE, etab.), eraginik izan al du krisiak?

- No percibo / Ez dut jasotzen
- Sí recibo, pero no se ha producido variación / Bai jasotzen dut, baina ez da aldaketarik egon
- Sí recibo, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai jasotzen dut, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a tu pensión o prestación. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak zure pentsio edo prestazioan. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

10. Si dispones de **productos de apoyo** (silla de ruedas, scooter, grúa, etc.), ¿la crisis está afectando de alguna manera? / **Laguntza produktuak** badituzu (gurpil aulkia, garabia, etab.), eraginik izan al du krisiak?

- No tengo productos de apoyo / Ez dut laguntza produkturik
- Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
- Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse / Bai, eta aldaketa egon da edo egon daitekela uste dut

Señala como ha afectado o crees que puede afectar la crisis del Covid-19 a los productos de apoyo. Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi nola eragin duen edo eragin dezaken Covid-19aren krisiak laguntza produktuetan. Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

11. ¿**Has salido a la calle** tras comenzar las fases de desconfinamiento? / **Kalera atera** zara deskonfinamenduaren faseak hasi direnetik?

- No / Ez
- Sí, y no he notado diferencias con respecto a momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta ez dut desberdintasunik nabaritu krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz
- Sí, y he notado diferencias con respecto momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta desberdintasunak nabaritu ditut krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz

Señala qué diferencias has notado (distancia social, reticencias para recibir ayuda, uso de ascensores, etc.) Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi ze desberdintasun nabaritu dituzun (distantzia soziala, laguntzeko erreparoa, igogailuen erabilera, etab.). Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

12. **¿Has utilizado el transporte público** tras comenzar las fases de desconfinamiento? / **Garraio publikoa** erabili duzu deskonfinamenduaren faseak hasi direnetik?

- No / Ez
- Sí, y no he notado diferencias con respecto a momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta ez dut desberdintasunik nabaritu krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz
- Sí, y he notado diferencias con respecto momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta desberdintasunak nabaritu ditut krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz

Señala qué diferencias has notado (espacio para personas con movilidad reducida, sistemas de pago, prioridades en el acceso, etc.) Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi ze desberdintasun nabaritu dituzun (mugikortasun murriztua duten pertsonentzako lekua, ordaintzeko sistenak, sartzeko lehentasuak, etab.). Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

13. **¿Has acudido a algún establecimiento de hostelería o comercio** tras comenzar las fases de desconfinamiento? / **Ostalaritza edo merkataritza establezimenduren** batera joan zara deskonfinamenduaren faseak hasi direnetik?

- No / Ez
- Sí, y no he notado diferencias con respecto a momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta ez dut desberdintasunik nabaritu krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz
- Sí, y he notado diferencias con respecto momentos anteriores al comienzo de la crisis / Bai, eta desberdintasunak nabaritu ditut krisiaren aurreko egoerarekin alderatuz

Señala qué diferencias has notado (ampliación de terrazas, cita previa, etc.) Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi ze desberdintasun nabaritu dituzun (terrazen haunditzea, aurretiko erreserba, etab.). Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

14. Si recibes algún **servicio sanitario** (tratamiento médico, rehabilitación, citas médicas, etc.). ¿la crisis está afectando de alguna manera? / **Osasun zerbitzuren bat jasotzen baduzu** (osasun tratamendua, errehabilitazioa, medikuarekin hitzorduak, etab.), eraginik izan al du krisiak?

- No / Ez
- Sí, pero no se ha producido variación / Bai, baina ez da aldaketarik egon
- Sí, y se ha producido alguna variación o creo que puede producirse en adelante / Bai, eta aldaketaren bat egon da edo egon daitekela iruditzen zait


Señala qué diferencias has notado (suspensión de tratamientos, retraso de citas, etc.) Puedes señalar tus propuestas en este ámbito / Adierazi egondako aldaketak (tratamenduen etetzea, hitzorduen atzerapenak, etab.). Arlo honetan dituzun ekarpenak azaldu ditzazkezu ere.

15. ¿La crisis del Covid-19 te ha generado o ha incrementado una sensación de **soledad**? / Covid-19aren krisiak **bakardade** sensazioa sortu edo areagotu dizu?

- Ns/Nc / Ed/Ee
- No / Ez
- Sí / Bai

Señala si lo deseas algún comentario al respecto / Arlo honetan zure iruzkinak azaldu ditzazkezu.

16. Si lo deseas, puedes señalar **cualquier otro comentario, opinión o propuesta** sobre la manera en que la crisis sanitaria y social derivada del Covid-19 puede afectar a las personas con discapacidad / Nahi baduzu, Covid-19ak eragindako osasun eta gizarte krisiak desgaitasuna duten pertsonengan izan dezaken eraginari buruz **beste iruzkinak, iritziak edo proposamenak** azaldu ditzazkezu



04

EMAITZAK: DATUAK ETA BALORAZIOAK

“Itxialdia hastearekin bat, etxez etxeko arreta zerbitzua kendu zidaten. Nola nagoen galdetzeko ere ez didate deitu. Eta ez da aldaketarik egon, osasun-arauak ere ez dituzte betetzen”

A) ITXIALDI FASEA

Jarraian, jasotako informazioa aztertu ondoren ateratako daturik esanguratsuenak, eta parte-hartzaileek egindako zenbait balorazio:

BIZILEKUA		%
Etxea	289	95,07
Egoitza	15	4,93
Guztira	304	

ETXEKO ZAINZA BEHAR DUTEN PERTSONAK		%
Bai	195	67,47
Ez	94	32,53
Guztira	289	

ETXEZ ETXEKO ZAINZA BEHAR DUTEN PERTSONAK		%
Bai	49	16,96
Ez	240	83,04
Guztira	289	

ETXEZ ETXEKO ZAINZA BALDINTZA BERDINETAN JASOTZEN DA?		%
Bai	32	65,31
Ez	17	34,69
Guztira	49	



“Etxez etxeko zaintza zerbitzua jasotzen dut, baina bertan behera utzi dut behin-behinean etxean arrisku-taldean dagoen senitarteko bat bizi delako eta arriskuak ekidin nahi ditugulako. Udaletxean oso jarrera ulerkorra izan dute; ez didate eragozpenik jarri, eta egoera normaltasunera itzultzen denean, zerbitzua jasotzen jarraitzeko aukera izango dudala esan didate”.

“Etxez etxeko zerbitzua jasotzen dut, baina etenda daukat. Ama adineko pertsona da, eta kutsatzeak ekiditzearren, ez etortzeko eskatu diogu”.

“Zertzitua eten zidaten, baina orain dela gutxi berrezarri didate; tarte horretan, bizilagun batek garbitzen zidan etxea”.

A) ITXIALDI FASEA



“Lehen, goizez etortzen siren soilik, etxea garbitzera. Orain, senidea oheratzen laguntzera ere etortzen dira”

“Zenbait egunetan, gure etxera datorren pertsona ez da etorri, bajaran zegoelako.

Beste inor ez etortzea nahiago izan dugu, ordezkapena egitera etortzen diren pertsonak ez dutelako behar besteko esperientzia”.

“Nire senideak bi iktus izan ditu; kontratatu behar dugun laguntzaile pertsonalak ikastaroa egin behar du Lanbiden, eta horren zain gaude, baina ikastarorik ez da ateratzen”.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAK ARRETA ORDUAK GEHITU DITU?		%
Bai	10	20,41
Ez	39	79,59
Guztira	49	

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAN JARDUTEN ZUTEN PROFESIONAL LANTALDEA ALDATU DA?		%
Bai	12	24,49
Ez	37	75,51
Guztira	49	

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAK SEGURTASUN NEURRIAK BETETZEN DITU?		%
Bai	38	77,55
Ez	11	22,45
Guztira	49	

ETXEAN BIZI ETA LAGUNTZA PERTSONALA KONTRATATU DUTENAK		%
Bai	24	8,30
Ez	265	91,70
Guztira	289	

LAGUNTZA PERTSONALA BALDINTZA BERDINETAN JASOTZEN DA?		%
Bai	20	83,33
Ez	4	16,67
Guztira	24	

LAGUNTZA PERTSONALAK ARRETA ORDUAK GEHITU DITU?		%
Bai	3	12,50
Ez	21	87,50
Guztira	24	

LAGUNTZA PERTSONALAK ZERBITZU GEHIAGO EMATEN DU?		%
Bai	12	50,00
Ez	12	50,00
Guztira	24	

LAGUNTZA PERTSONALA EMATEN ZUTEN PROFESIONAL LANTALDEA ALDATU DA?		%
Bai	3	12,50
Ez	21	87,50
Guztira	24	



"Ezin ditut ordu gehiago kontratatu. Foru Aldundiak emandako diru-laguntzekin ordaintzen dut, eta nire egoeran, ezinezkoa zait lan-ordu gehiago kontratatzea".

A) ITXIALDI
FASEA



“Laguntzaile pertsonala etxean bizi da; eskularruak nik erosi ditut (erraza), baina ez dut maskarillarik lortu”.

LAGUNTZA PERTSONAL ZERBITZUAK SEGURTASUN NEURRIAK BETETZEN DITU?		%
Bai	22	77,55
Ez	2	22,45
Guztira	24	

EGOITZETAN BIZI DIREN PERTSONAK, ETXERA ITZULI NAHIKO LUKETE? %		%
Bai	4	26,67
Ez	11	73,33
Guztira	15	

UDALETXEKO GIZARTE ZERBITZUAK ZUREKIN HARREMANETAN JARRI DIRA BIZI DUZUEN EGOERA ETA BEHARRAK EZAGUTZEKO?		%
Bai	54	18,69
Ez	235	81,31
Guztira	289	

BOLUNTARIOEN LAGUNTZA JASOTZEN DUZU?		%
Bai	12	4,15
Ez	277	95,85
Guztira	289	

ELIKAGAIAK EROSTEKO ZAILTASUNAK DAUZKAZU?		%
Bai	16	5,54
Ez	273	94,46
Guztira	289	

BOTIKAK EROSTEKO ZAILTASUNAK DITUZU?		%
Bai	7	2,42
Ez	282	97,58
Guztira	289	



*“Ezinezkoa da eguneroko
erosketak on-line elite”.*

A) ITXIALDI FASEA

Parte-hartze prozesuko lehenengo fasean aritu diren desgaitasun fisikoa duten pertsonak egindako beste gogoeta eta ekarpen batzuk:



“Egoitzetan normalean baino langile gehiago dago, baina ezagutza maila apalagoa dute; gehienak Eguneko Zentroetatik etorritako langileak dira”

“Mendekotasunaren kasuan, laguntzak murriztea oso erraza da. Beharrak areagotzen direnean, ordea, ez dira azkartasun berarekin gehitzen. Nire kasuan, energia kontsumoa, O₂gatik, areagotu egin da; laguntza, berriz, ez da proportzio berean handitu, kontrakoa, murriztu egin didate”

“Erosketak on-line egitea eramangaitza da, eta kolektiboarentzako erraztasunik ez dago. Ez dute telefonorik hartzen; 30 minutu pasa ditzakezu telefonoan zain, eta gero ez gaituzte ulertzen edo deia mozten dute... Ez dago modurik! Erosketak 7-15 eguneko epean iristen dira... lehenetsuneko banaketak egin beharko lituzkete, 48-72 orduko epean”.

“Erosketak on-line eviten ditut, eta 3-4 asteko atzerapenarekin iristen zaizkit”

“Desgaitasuna duen semea daukagu, eta gu arduratzen gara guztiaz. Biok tele-lana egiten digu, eta semearen zaintzarekin uztartzea ez da bateragarria. Ohartuta gaude denbora aurrera doala, eta bitarte honetan errehabilitazio saiorik ez du jasotzen (eta ezinbestekoa du)”

“Familiari esker, nire behar guztiak aseta dauzkat”

Etxez etxeko laguntza ukatu didate; nire eguneroko higienarako dela esan didate, ez etxea garbitzeko”



B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

Desgaitasun fisikoa duten pertsonak eremu ezberdinetan jaso duten arretaren inguruan egin dituzten balorazioak hauek dira:

FAMILIA ZAINZA



"Nire zaintzaz arduratzen diren senideak lanera itzuli dira, normaltasunez. Bitartean, zerbitzurik gabe jarraitzen dut, terapiarik gabe... eta etxean nago. Normaltasunera itzultzen ez banaiz, haiek ezin dute normaltasunera itzuli. Eguneko Zentro batera joaten naiz, baina oraindik itxita dago"

"Momentuz, telelanean ari direla, elikagaiak erosten dizkirate, enkarguak egiten dizkirate... ongi zainduta nago. Arazoa lantokira bueltatzen direnean aurreikusten dut"

"Zaintzaileak ezin du etorri, eta zaintzaren ardura senitartekoek hartu dute"

"Eguneko Zentrora joaten naiz, eta gainontzeko orduetan emazteak egiten ditu zaintza-lanak. Orain, Eguneko Zentroa itxita, emaztea arduratzen da gau eta egun, eta nekatuta sumatzen dut"

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA



"Laguntzaileren lana ordezeko batek egiten du, eta nire ustean, ez du maila ematen, desastre hutsa da"

"COVID-19aren aurretik etxez etxe laguntza jasotzen nuen, eta kendu egin didate nire egoera zein den galdetu gabe. Argudio bezala, alaba adinez nagusia dela esan didate, eta etxean animalidad ditudala. Oso gaizki sentiarazi naute"



B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

LAGUNTZA PERTSONALA



"Langileak beldurtuta daude"

"Laguntza pertsonalaren ordutegia aldatu behar izan dut; laguntzailea autobusez etortzen da, eta bere autobus ordutegira moldatu behar izan dut gaueko zaintza galduz"

"Gerta liteke nire laguntzaileak baja hartzea eta zailtasuna izatea ordezkoa bilatzeko"

"Orain, laguntzaileak ordu gehiago pasatzen ditu nirekin"

"Laguntzaile pertsonala gaixotu egin da, eta zailtasunak izan ditut ordezkapenak egiteko langileak falta direlako"

"Nire kasuan, etxez etxeko laguntza zerbitzua eten egin dute, nire alaba adinez nagusia dela argudiatuz. Ordu kopurua areagotu beharko duten laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE) jaso dut. Baina COVID garaian jasotako laguntza ez da nahikoa izan. Nire ustez, banakako deiak egin eta egoera guztiak aztertu hartu behar ziren erabakiak"

"COVID garaian ere laguntzaile pertsonala etorri da, baina nahikoa astirik ez zeukan nire beharrak asetu eta etxeko lanak egiteko. Edozein kasutan, bere prestutasuna eskertzekoa izan da. Orain, etxe etxeko laguntza kendu didatenez, laguntzaile pertsonalak ordu gehiago pasako ditu nirekin. Nire kasuan, bere laguntza jasotzea garrantzitsua izan da, nahiz eta ordu kopurua ez da nahikoa izan".

EGUNEKO ZENTROA



“Behin eta berriro eskatu arren, Eguneko Zerbitzuak ez du zerbitzua abiarazi”

“Laster, berriro hasiko gara Eguneko Zentrora joaten, baina PCR froga ez digutela egingo esan digute”

“Momentuz ezingo dut Eguneko Zentrora itzuli; mendekotasun mailaren arabera jarri baitituzte itzultzeko lehentasunak”

“Egoitza batean bizi naiz, eta beheko solairuan dagoen Eguneko Zentroa martxoaz geroztik itxita dago. Eguneko Zentroko begiraleak dira gurekin daudenak, eta Egoitzaren funtzionamendua ez dute ezagutzen. Eguneko Zentroa zabalik mantendu behar zela uste dut, alarma egoeran ezarritako neurriak zainduz noski”

“Beste Eguneko Zentro batetara joateko aukera eman didate, baldin eta neure kabuz joaten banaiz, eta ordutegia murriztuarekin. Niretzako ez da irtenbide egokia; batetik, ordu murrizketagatik, iristerako joateko ordua baita; eta bestetik, espazioa Eoitzako egoiliarrekin partekatu behar dugulako, eta ez dago guztiontzako nahiako espaziorik”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

EGOITZA



"Langile berriak (Eguneko Zentrokoak eta itxita dauden beste egoitzetakoak). Ekainaren 8ra arte ezin dugu irteerak egitera atera, eta beti begiraleen laguntzarekin".

"Irteerak eta bisitak debekatu dizkidate, eta gizarte-langileak esku-hartu behar izan du kanpotik oinarrizko ondasunak eskuratzeko".

"Egoera korapilatu egin da Egoitzako langileak Eguneko Zentrora lekualdatu direnean. Foru Aldundiak irteerak debekatu ditu, eta gaur, ekainak 8, ezin izan dugu gure osteratxoa egin. Eta ez dugu inolako azalpenik jaso. Eguraldia kaskarra da? Laguntza-langile gehiago ez dituzte jartzen...".

"Gizarte-langileak nire autosufizientzia ordezkatu du berriro ateratzeko aukera izan arte".

"Fisioterapia eta psikiatria zerbitzuak telelanagatik ordezkatu dituzte behin behinean. Gainera, itxialdia hasi zenetik ez dugu ateratzeko aukerarik izan. Geroz eta jasangaitzagoa bihurtzen ari da itxialdia".



“Eguneko Zentrora joaterik ez daukagunez, egun osoa Egoitzan pasatzen dugu. Kalera ateratzen hasi gara, baina ez guk nahi dugunean, uzten digutenean baizik, eta beti begiraleen zaintzapean”.

“Deseskalatzea motelago egin da Egoitzetan; irteteko aukerarik gabe jarraitzen dugu (eta irten nahi dugun edo ez erabaki gabe) eta egoera geroz eta nekezagoa da, batez ere psikologikoki eta emozionalki”.

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

FORMAZIOA



"ASPACEn eskolatuta nago eta aurten ez naiz klaseetara joan"

"Eskolak bertan behera geratu dira"

"Orain Internetez da. Baliabideak eta ezagutzak falta zaizkit"

"Ez naiz klasera joan, baina etxeko-lanak bidaltzen zizkidaten. Irakasleekin plataforma ezberdinen bidez jarri gara harremanetan, baina azalpen teorikorik ez dugu jaso, etxeko-lanak jaso baino ez. Eta gero, bakoitzak ahal zuena egiten zuen"

"On-line dira (klaseak), eta ez naiz ongi moldatzen ordenagailuarekin"

"Ikastaroa on-line amaitu dugu, ikasketa prozesua are gehiago zailduz"

"Klaseak on-line dira, eta ikasle guztiak konektatzen ez garenez, bertan behera utzi dituzte"

LANA



“Negozio baten jabe naiz, eta salmentak izugarri jaitsi dira”

“Eguneko Zentroaren zerbitzua etenda, bertan egiten genuen lana ere geratu da”

“Lanean jarraitu dut, baina etxetik, telelanean”

PENTSIOAK ETA GIZARTE PRESTAZIOAK



“Beldur naiz krisiaren ondorioek eragina izango ote duten etorkizuneko nire pentsioan”

“Diru aldetik gastuak bikoiztu zaizkit konfinamenduan, ekonomikoki laguntza eskatu behar izan dut egoera honi aurre egiteko”

“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak ez ditu bere irizpideak krisialdira egokitu”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

LAGUNTZA PRODUKTUAK



"Konfinamenduan, terapia faltagatik, identifikatzerik izan ez ditudan laguntza fisikoaren beharrak sortu zaizkit. Medikuekin hitz egiteko aukerarik ere ez daukat".

"Gurpildun-aulki elektrikoa erosteko eskaera egina daukat, baina entrega-epea luzatu egin da".

"Laguntza produktu bat puskatu zait, baina ez daukat berria erosteko nahikoa baliabide ekonomiko".

"Zerbitzu teknikoa falta da, ortopedietako itxaron zerrenda luzeak, laguntza produktuen konponketa epeak luzatu egin dira...".

"Itxialdian ez dut gurpildun aulki elektrikoa erabili (ezin dut kalera irten) eta kezkatuta nago funtzionamenduarekin, batez ere bateriekin".

"Gurpildun-aulkian matxura izan dut, eta ortopedian ez didate konponketarik egin. Hori dela eta, itxialdia amaituta, ez dut kalera ateratzeko aukerarik izan arazoa nire kabuz, instituzioen laguntzarik gabe, konpondu bitartean"

KALERA IRTEERAK



“Gurpildun-aulkian ibiltzeagatik zirkulazio-muga handiagoak dauzkat. Desgaitasuna duen pertsona naiz, eta ezin ditut zenbait ekintza egini”.

“Pertsonak distantzia soziala ez dute mantentzen, eta egoera horrek larritu egiten nau”.

“Musukoa erabiltzeko laguntzailea behar dut, ez naiz gai bakarrik jartzeko; asteko erosketa egitera laguntzaile pertsonalarekin noa, ez naiz bakarrik joatera ausartzen”.

“Zonalde batzuetan ez da distantzia soziala mantentzen; jende askok ez du musukoa erabiltzen. Beste batzuetan, egoera baretuago dago. Baina, orokorrean, nahasmena antzematen da, giro arraroa”

“Erreparoa edozein gauza nik ikutzerakoan heltzeko, eta jendea laguntza emateko prest handitu da”

“Eztul kronikoa daukat, eta orain jendeak ezberdin begiratzen nau”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

KALERA IRTEERAK



"Erosketak egiterako garaian, itxaron-zerrendak handiak dira edozein dendatan; niri iritziz, desgaitasuna dugun pertsonok ez genuke kolarik egin behar; niri kasuan, ezin dut leku batean denbora asko pasa mugitu gabe bizkarreko mina jartzen zaidalako"

"Niri bizimodua ez da askorik aldatu. Kalean, berriz, antzeman dut aldaketa, batez ere musukoaren erabileragatik eta distantzia sozialagatik"

"Jendeak orain ez dizu horrenbeste laguntzen. Ez dut esango bizkarra ematen didatela, baina mesfidantza antzeman dut; jendea nahiago du bere kaxara ibili"

"Gurpildun-aulkian zaila da jatetxe, denda eta antzekoetan distantzia soziala mantentzea"

"Janari-denda txikietara joaten naiz orain, eta kanpotik egiten ditut erosketak, dendara sartu gabe. Denda handietara ez naiz joaten; batetik, distantzia sozialagatik, eta bestetik, produktuak ez ukitzeagatik (nahiz eta mundu guztiak ez duen errespetatzen). Ile-apaindegira edo arropa-dendetara momentuz ez naiz joan, ez dakit nola moldatuko naizen joatea erabakitzen dudanean"

"Itsu batentzat, halako egoeran besteen laguntzaren beharra areagotzen da: eskatzen den distantzia mantentzeko."



“Esate baterako, ile-apaindegi batzuetara sartzeko zapatak kendu behar izaten da. Orduan, gurgildun-aulkian ibiltzen garenak ezin dugu sartu? Tabernetako terrazetan eseri ahal izateko ere, itxaron beharra daukazu tabernariak mahaia jarri arte”.

“Itxialdian kalera ateratzen nintzen, niri ordutegia errespetatuz. Orain, berriz, beldurren ateratzen naiz: jendea ez da espaloietan baztertzen ni pasatzen naizenean, musukorik gabe ibiltzen da, ...”.

“Musukoa erabiltzeko zailtasunak; zailtasuna eta segurtasun falta jendearengana laguntza eske hurbiltzeko, esate baterako, garraio publikoan, distantzia soziala mantentzerik ez dagoelako”.

“Distantzia soziala ez didate errespetatzen, musukoa edo pantaila jartzeko laguntza, leku itxietara bakarrik joateko ezina, ...”.

“Arau-haustea ikusten ditut; jendeak ez du segurtasun distantzia mantentzen, merkatal-guneetan jendea elkarbultzaka ikusten dut erosketak egiterakoan”.

“Segurtasun falta (subjektiboa)”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

KALERA IRTEERAK



"Distantzia sozialarenak urduri jartzen nau. Ez dakit, gurpildun-aulkian nabil eta jendeak goitik behera hitz egiten dit, eta kutsatzeko arriskua handiagoa dela iruditzen zait"

"Egoitza batean bizi naiz, eta oraindik ez dut kalera ateratzeko aukerarik izan. Ez da justua, zergatik gainontzeko pertsonak badute eskubide hori?"

"Distantzia soziala gogorra egiten ari zait, baina okerrena supermerkatuetako kola izaten da. Ez dago enpatiarik gizartean, hiru hilabete hauetan pertsona bakarra izan da kolan aurrera pasatzeko esan didana. Behin baino gehiagotan joan egin behar izan naiz ez naizelako gai denbora luzean zutik egoten"

"Ez naiz gai eskuak bakarrik garbitzeko, edo musukoa neure kabuz jartzeko. Eta uneoro azalpenak eman beharrean aurkitzen naiz".

"Hasiera batean, jendeak distantzia soziala mantentzen zuen. Orain ez. Eta beldurgarria da, jendea saihesten ibili behar dut. Eta supermerkatuetan, batez ere hasieran zer esanik ez!".

"Kontu handiz ibili beharra dago, eta batez ere, distantzia soziala mantentzen ikasi behar da"

GARRAIO PUBLIKOA



“Eserleku kopurua mugatzean, bidaiariak mugikortasun arazoak dauzkagun pertsoneri erreserbatutako eserleketan joaten dira; okupatuta daude beti, eta ez pentsa lekua uzteko altxatzen direnik. Nire kasuan, gainontzeko eserleketan esertzeko arazoak dauzkat, niretzako altuegi daudelako”.

“Autobusetan bidaiatzeak beldurra ematen dit jendea erreserbatuta dauzkagun espazioak hartzen dituelako”.

“Txartel bidez ordaintzeko sistema, ezin dugu diruarekin ordaindu; mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbatutako eserlekuen murrizketa elkarren ondoan bidaiatzea debekatuta dagoelako. Autobusetara igo eta jaisteko, atzeko partea erreserbatu digute, eta espaloia oso urrun geratzen zaigu; gainera, igotzeko altuera oso handia da, eta heldulekuak ezin direnez ukitu, laguntza eskatu behar izaten dut”.

“Jendea erreparoen gehiagorekin dabil, distantzia soziala errespetatzea nahi du, baina zenbait momentutan, ezinezkoa da distantzia hori mantentzea. Eta gero, erreserbatutako eserlekuen kokagunea. Normalean, txartelak pasatzen diren

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA


GARRAIO PUBLIKOA



makinaren ondoan egoten dira, eta sentsazioa daukazu jende guztia zure gainean dagoela, itogarri xamarra da. Garraio publikoan horrela bidaiatzeak beldurra ematen du".

"Zenbait lineatan maiztasuna gutxitu da, eta beste kasu batzuetan, bertan behera utzi dituzte".

"Ordutegiak ez dira errespetatzen"



OSTALARITZA/KOMERTZIOA



“Aurretiko hitzordua, edukiera mugatua”

“Arau-inkoherentziak”

“Egon naizen saltokietan arauak errespetatu dira: segurtasun distantzia, desinfekzioa, eta abar. Baina ikusi ditut bestelako adibideak ere: mahai eta mahai artean segurtasun distantziarik ez, ilaratan jende pilaketak...”

“Distantzia eta eskularruak, gel eta maskarilla erabili beharra. Mahaia izateko aurretiko zita eskatu beharra. Terrazak handitu egin dira eta ibiltzeko zailtasun gehiago daude”

“Eskularruekin ibiltzeko derrigortasunak, eskuekin edozer gauza egiteko gaitasuna mugatzen dit. Eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitu ditudala azaldu arren, eskularruak jartzera behartzen naute. Zenbait lekutan, sartzeko eta irteteko lekuak banatu dituzte, eta pasabideak oso estuak dira. Ezinezkoa zaigu inorekin edo ezerekin tupust egin gabe sartu edo ateratzea”

“Terraza kopurua areagotu egin da, eta zenbait kasutan, oinezkoak lekurik gabe geratu gara”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

OSTALARITZA/KOMERTZIOA



"Erosketak egitera joan naiz; errespeturik ez dut ikusten, segurtasun distantziarik ez da mantentzen. Jendeak kalean erakutsi duen jarrerak mesfidantza sorrarazi dit"

"Itxialdia hasi aurretik bakarrik joaten nintzen, orain ezinezkoa zait"

"Hasieran hartu nituen kafe pare bat, baina orain ez naiz joaten, jendeak ez dituelako errespetatzen segurtasun neurriak"

"Merkatal-guneetako ilaretan segurtasun distantzia mantentzen da, baina soilik kanpoko ilaran, denda barruan ez da errespetatzen. Eroskin, esaterako, adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako ilara jarri dute, baina jendeak ez du errespetatzen"

"Saltokietara sartzeko zailtasun gehiago; edukiera mugatua; eserlekuak ezin erabili, eta zutik itxaron beharra; jendea urduri dago, eta ni ere urduri jartzen naiz"

OSASUNA



“Terapiak bertan behera geratu ziren, eta behar handia dudan arren (eta berriro hasteko eskatu arren), momentuz etenda jarraitzen dute ”

“Hitzorduak bertan behera”

“Aurrez aurreko arreta etenda, atzerapenak dauden hitzordu eta kontsulta telefonikoetan”

“Ospitaleko farmaziatik behar ditut botikak; hasiera batean, aurretiko hitzordua beharrezkoa zen, eta orain etxera bidaltzen dizkirate”

“Telefono bidezko kontsulta batzuk egin ditut. Ekografia bezalako frogak, berriz, hirutan atzeratu dizkirate. Ebakuntza egiteko zain nago, eta nire ziru jauak froga horietako baten emaitza ezagutu behar du ebakuntza egin aurretik”

“Hitzorduak, aurrez aurrekoak eta telefono bidezkoak, bertan behera”

“Kontsultak galdu egiten dira. Gaixo kronikooi alta emateko oso modu fina da, oso sutila. Behin baino gehiago emandako agindua izan da, ezkutuan gainera”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

OSASUNA



"Hitzorduak atzeratu, mediku kontsultak telefonoz, eta osasun zentroan garbitasun handia eta distantzia soziala"

"Errehabilitazioa bertan behera geratu zait"

"Onkologikoan hitzordua neukan; normalean ambulanzian joaten naiz, senide batek lagunduta. Oraingoan bakarrik joan behar izan dut, eta senidea autobusez gerturatu da"

"Hitzorduak atzeratu, edo gainontzean, telefono bidezko kontsulta. Nire ustez, etxez etxeko kontsultak egitea beharrezkoa da, gaixoa nola dagoen ikusteko"

"Errehabilitazioan atzerapenak, geldik egon den denboraz gainera, segurtasun neurriengatik mantxoago doa, eta rehabilitazio hasieraren berri gabe jarraitzen dut. Hiru hilabete itxaroten eta berririk gabe oraindik"

"Momentuz, telefono kontsultak egin ditut, eta esan beharra daukat pozik nagoela, aurrez aurreko hitzorduak bezalakoak izan dira. Aukeran, nahiago



dut horrela egitea, modu honetan ez daukat osasun zentzora joan behar"

"Hitzorduak atzeratu, osasun mentala itxita; psikiatrak noizean behin deitu dit, baina bakarrik sentitu naiz, larrituta"

"Errehabilitazioara joateko aukerarik ez dut izan; ez dut lan fisikorik egin, ezta igerilekura joan ere. Ondorioz, mugikortasuna galdu dut"

"Mugikortasun arazoak dituzten pertsonak atzera pausoa eman dute, eta galdutakoa berreskuratzea kosta egingo zaie"

"Jarduera ezak arazo fisiko eta psikologikoak sor ditzake"



B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

BAKARDADE SENTIMENDUA



"Kolektibo zaugarria gara, ahula, eta horrenbeste denbora etxetik atera gabe pasa izanak beldurtu egiten nau. Kalera ateratzen garenerako mundu guztia kalean egongo da, eta egoerak kezkatu egiten nau".

"Egoitza batean egon arren, egoera berean dagoen jendea gertu izan arren, ez zaude zure etxean. Jendeak orduak eta orduak pasatzen ditu telebista ikusten, edo erabat joana. Tarteka elkarrizketak sortzen dira, baina ez dira batera naturalak".

"Etsigarria da alaba edo ilobak ikusteko aukerarik ez izatea. Badira 70 egun alaba zaharrena ikusten ez dudala".

"Bai, itxialdia hasi zenean pentsatzen nuen, eta orain, norengana joango naiz laguntza eske? Edo, nork lagunduko nau".

"Foru Aldundiko egoitza kontzertatuetan gauden egoiliarrok ezin dugu kalera irten, gainontzeko herritarrek bezala, eta niri iritziz, ez da justua. Bi hilabete eta erdi pasa dira kalera ateratzen ez naizenetik. Bikotea banu, ez dakit nola eutsiko genioke erlazioari. Kartzela-erregimenean gaudela dirudi".

"Etxetik ateratzeko mugak dauzkagu, eta nire bizitza soziala hutsaren parekoa da".



“Nire gorreria dela eta, audifonoarekin ibili arren, baxu hitz egiten duten pertsonak ez ditut entzuten (sarri, gainera, ez dute altuago hitz egiteko ahaleginik egiten). Dendetako maparak jartzen badituzu, orduan bai ez dudala piperrik entzuten. Laburtuz, ez naiz eroso sentitzen dendaz denda erosketak egiten.

Nire lagunen artean, badira eszeptiko xamarrek, eta ondorioz, segurtasun neurriak ez dituzte besteok bezala errespetatzen, eta niri, jarrera horrek beldurtu egiten nau, kutsatzeko beldurra daukat. Eta nire egoeran, gaixotasuna konplikatzeiko arrisku gehiago daukat. Beste batzuetan, naturaz goatzeko planak egiten dituzte, edo niritzeko irisgarria ez den etxebizitza batean egiten dute hitzordua. Eta jakina, nik halakorik ezin dut egin”.

“Batez ere amak kezkatzen nau. 86 urte ditu eta gaixo kronikoa da, arrisku taldean dago. Baina ez da nahikoa motibo pertsona bat hiltzeko, ezin da normaltzat hartu”.

“Gauzak nire kabuz egiteko gaitasunik ez dudan sentsazioa areagotu egin da; ezin dut bakarrik egon, edo zenbait gauza egiteko beste norbaiten laguntza behar dut, nahiz eta harreman sakonik ez izan pertsona horrekin”.

“Krisialdi honek bizitzari egin dio kalte, baina niri ere”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

BAKARDADE SENTIMENDUA



"Bizi dugun egoera honetan normala iruditzen zait, kontuan izan alde baterako baino ez dela. Beste hainbat gauzen artean bideo-deiak egiten ditut... baina egia aitortzeko, lagunaren falta sumatzen dut".

"Itxialdian ez dut aukerarik izan nire lagunekin egoteko".

"Ikaskideekin ez sozializatzea".

"Instituzioek eta gizarte zerbitzuek abandonatuta sentitu naiz. Nire ahuldadeaz jabetu naiz, eta alabak emandako laguntzari eta desgaitasuna duten beste emakumeekin egin ditudan bideo-deoei esker babestuago sentitu naiz. Egoera honetara mendekotasun maila handiagoarekin iritsi izan banintz, ez dakit zer izango zen nitaz, nire alabaz edo nire gurasoez. Guztiak talde ahulenaren partaide gara. Gaizki pasa dut, eta gaizki pasatzen ari naiz".

"Egun osoa pasatzen dut egoitzan, inorekin erlazionatu gabe. Laguntzeko aukera daukatenean deitzen dut".

"Bakarrik nago, bakarrik bizi naiz, eta hori gutxi balitz, konfinatuta, erosketa egitera joateko aukerarik gabe. Egoera honek larritu egin nau".



“Ez dut bakardaderik antzeman; lagunekin telefonoz eta bideokonferentziaz aritzeak asko arindu du itxialdia, gainera laguntzaile pertsonalarekin daukadan erlazioa oso ona da, eta horrek ere laguntzen du”.

“Eragina izan du, noski, esparru guztietan. Laguntza gehiago behar dugu, baina ez da inoiz iristen. Bakardade sentrazioa ikaragarria da, abandonatuta sentitzen naiz”



B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

BESTE BALORAZIO BATZUK



"Bai, nire ustez, egoitzetan dauden pertsoneri kalera ateratzeko baimena lehenago eman behar zitzaien, beste kolektibo askori bezala".

"Deseskalatze fasea desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartu gabe diseinatu da, dauzkaten beharrei bizkar emanez. Babes handiagoa behar duen kolektiboa da, baina alderantziz gertatzen ari da, apenas eman zaie babesik".

"Nire semeak sindromo arraro bat dauka, eta jasotzen genituen zerbitzuak eten dizkigute".

"Lehen, laguntza eskatzen genuen kalean: igogailua hartzeko, erosketak egiteko... Orain, laguntzaile pertsonala behar dugu uneoro".

"COVID19aren eraginez, ezin izan dut elkartuk antolatzen dituen oporraldietara joan. Abuztuan joaten naiz, eta urteko oporraldi bakarra da. Hori ez da 2020an galduko dudako zerbitzu bakarra; HONDARRIBIAN antolatzen duten OZTOPORIK GABEKO BAINUAK ekimena ere bertan behera utzi dute. Pena handia dut bi zerbitzu hauek galdu izanagatik".



“Desgaitasuna duten beste pertsona batzuk ezagutzen ditut, eta egoera honek egunerokotasunean eragin die; batez ere maila emozional eta psikikoan (beldurra, estresa, lo egiteko arazoak, bakardade sentrazioa, eta abar”

“Informazio fidagarriaren gabezia nabaritu dut, adibidez autobusen ordutegiei buruz”

“Mendekotasun mailaren arabera, eragina handiagoa edo txikiagoa izango da. Errenta unibertsala desgaitasun psikofisikoa duten pertsona guztiek jaso beharko lukete”

“Normaltasun berriak” zein bilakaera izango duen arduratzen nau; eta eman behar dizkiguten laguntzak jasoko ditugun edo telebista eta hauteskunde kanpainetako hizketagai izango diren kezkatzen nau. Egoitzek ere kezkatzen naute”.

“Aniztasun funtzionala daukaten pertsonen kolektiboak egiten dituen aldarrikapenak bigarren maila batean geratuko ez ote diren beldur naiz. Administrazioek lehentasuna emango diote COVID-19ak sortutako ondorioei erantzuna ematen”.

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

OTRAS VALORACIONES



"Beti bezala etxekoen menpe egon behar, independentziarik gabe, herriko dendetan ezin dudalako sartu aulki gurpildunarekin"

"Gure kolektiboa ahaztuta geratu dela sentitzen dut. Adineko pertsonen taldean sartu gaituzte, eta ez dira konturatzen gure beharrak eta haienak ez direla berdinak. Gure kolektiboan ere, egoera ezberdinak ematen dira, eta hori dena ez da kontuan hartu"

"Pandemiaren eraginez, lagunekin harremana galtzen ari gara. Eta guretzat berebizikoa da harreman hori mantentzea, lagunak baitira gaizki gaudenean animoak ematera etortzen direnak"

"Egoera honek oso ahula sentiarazi nau, eta egoeraz jabetu naiz. Ulertzen dut pandemia egoera honek sorrarazi duen guztia, zailtasunak areagotu egin direla. Baina badira ahuztu ezin daitezkeen hainbat kolektibo; besterik ez bada, telefonoz hitz egin behar da haiekin, nola dauden galdetu, dituzten arazoei irtenbidea eman, lasaitzen ahalegindu, eta nola ez, ahotsa eman, iritzia emateko baliabideak eskaini, bizi-baldintza duina eman. Kontzientziazio mailan lan asko falta da egiteko. Behar bereziak dauzkagun pertsonak gara, baina errespetuzko tratua merezi"



dugu. Osasungintzan gogorra izan da hitzorduak edo ebakuntzak atzeratu dizkigutela ikustea. Ulertzen dut egoera, baina osasun sistemaren aldeko apustua ez da nahikoa”

“Gizarte Zerbitzuen aldetik, babesgabe sentitu naiz. Nire gurasoak arriskuta taldean daude (70 urtetik gorakoak), eta arazoak dauzkate. Egunero joan behar izan dut laguntza ematera. Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jarri nintzen, egoeraren berri eman eta irtenbide egokia topatzeko asmoz. Erantzuna oso zakarra izan zen, oso gaizki sentiarazi ninduten, minduta eta inpotentia handiarekin. Pertsona guztiekin hitz egin beharra dago, eta bakoitzari behar duen konponbidea eman. COVID-19ak egoera zaildu duela ulertzen dut, baina nire kasuan, arreta falta etsigarria izan da”

“Egokiena helduekin batera ateratzen uztea zela uste dut, ez gainontzeko pertsona guztiekin batera. Egoera honek beldurra eta antsietatea sorrarazten dizkit”

“Jarraipen gehiago eta isolamendu gutxiago”

“Berreragertzeari beldurra, eta segurtasun falta”

B) "NORMALTASUN BERRIA" FASEA

OTRAS VALORACIONES



"Egoera berria da, eta gogorra; badakit. Sistemaren egokitasuna auzitan jarri du. Zerbitzu Sozialek kasu bakoitza aztertu beharko lukete, eta pertsonen beharren arabera erantzunak eman. Desgaitasuna duen emakumea naiz, eta alabaren zaintza niri dagokit. Ezgauza sentiarazi naute. Hori gutxi balitz, gurasoen zaintza egin beharra daukat. Denbora tarte honetan ez dut laguntzarik jaso, eta Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske joan naizenean, egoera ez da batere atsegina izan, babes gabe sentitu naiz, eta nire hitza zalantzan jarri dute. Irtenbidea zein den ez dakit, baina egoera bakoitza aztertu behar dela uste dut, kolektibo ahulenei ahotza eman eta ikustarazi. Gizartea, orokorrean, uste dut ez dela gure egoeraz jabetu. Eta guztion ardua dela uste dut. Pandemia garaiak desoreka asko ekarri ditu: emozionalak, ekonomikoak, giza-mailakoak... eta halakoetan gertatu ohi den bezala, kolektibo ahulenak dira kaltetuenak"

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE-HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

Parte-hartze prozesuaren hirugarren fasean parte-hartze tailerra antolatzen da. Hain justu, pandemiaren berragertze fasean. Aurreko faseetan landutako gaiak eztabaidatzen dira, baina pasatako denborak ematen duen perspektibarekin, pandemia garaian ikasitakoa kontuan hartuta eta desgaitasunaren eremuan politika eraldatzaileak diseinatzeko ondorioak aintzat hartuta.

Tailerra azaroaren 11n egin da, bideokonferentzia bidez eta Zoom plataforma erabiliz. Parte-hartze prozesuaren bigarren partean aritutako pertsonak gonbidatu dira, hau da, erantzun kualitatiboak eman zituztenak.

Saioan desgaitasuna duten 21 pertsonak (10 emakumezko eta 11 gizonetzko) parte-hartzen dute. Egitaraua, hiru zatitan banatzen da:

10:30h Aurkezpena, Zoomeko gela orokorrean. elkartuko ordezkariak tailerra nola izango den aurkezten dute: parte-hartze prozesuaren azalpena, saioan aztertu beharreko arloak eta lan metodologia.

11:00h – 12:00h Parte-hartzaileak Zoomeko hiru gelatan banatzen dira; moderatzaile batek gidatzen du saioa, aurreikusitako eztabaida-gai guztiak jorratzen dira.

12:30h – 12:35 Saioa bukatzeko, agurra Zoomeko gela orokorrean.

Tailerra egin aurretik, parte-hartzaile guztien artean txostena banatzen da, landuko diren gaien inguruko azalpenarekin.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

1. EREMUA

ETXEAN ARRETA EMATEKO EREDUA

Bizitza independientea errazten duen baliabide eskasiagatik, familiek beren gain hartu behar izan dute desgaitasuna duten pertsonak etxean zaintzeko ardura.

Iraganari begirada: Zer gertatu da krisian?

Zer eskubide urratu dira edo zer gabezia izan dira desgaitasun eta/edo mendekotasun egoerak etxean artatzeko? (Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua, Laguntza Pertsonala, Familiaren Zaintza, Bizitza Independientea, etab.)

Etorkizunera begirada: Krisiak zer irakaspen utziko dizkigun

- Frogatu al da komeni dela lehentasuna ematea desgaitasuna duen pertsonak bere zaintzak antolatzeari, zerbitzuak jasotzearen aurrean erabakitze gaitasuna txikiagoa den kasuetan? (Zerbitzua vs Zuzeneko Prestazioa)
- Nola bultzatu beharko litzateke Bizitza Independientearen eredua?
- Zer baliabide sortu beharko lirateke Laguntzaile Pertsonalaren eredua bultzatzeko?
- Zer aldatu beharko litzateke Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuan?
- Nola duindu beharko lirateke familiaren zaintzak?

2. EREMUA

EGOITZA ARRETAREN EREDUA

Egoitzak erabiltzen dituzten desgaitasuna duten pertsoneri ezarritako eskubide-gabetze bereziak agerian utzi du inoiz ez bezala instituzionalizazioaren izaera bereizlea eta egoitza-arretaren eredia sakonki eraldatzeko beharra.

Iraganari begirada: Zer gertatu da krisian?

Zer eskubide urratu dira edo zer gabezia izan dira desgaitasun eta/edo mendekotasun egoerak egoitzetan artatzeko?

Etorkizunera begirada: Krisiak zer irakaspem utziko dizkigun

- Nolakoa izan beharko litzateke desgaitasuna duten pertsonen arreta egoitzetan?
- Nola bermatu desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea beraiei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan?
- Nahikoa da oinarritzko baliabideak bermatzea (elikadura, ohea, zaintzak, etab.) edo komunitatean parte hartzea bermatu beharko litzateke?

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

3. EREMUA

OSASUNA

Krisiaren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonen osasun baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko diskriminazioa jasateko duten benetako arriskua azaleratu da.

Iraganari begirada: Zer gertatu da krisian?

Zer eskubide urratu dira edo zer gabezia izan dira osasun baliabide eta zerbitzuen esparruan?

Etorkizunera begirada: Krisiak zer irakaspen utziko dizkigun

- Zer egin beharko litzateke etorkizunean zalantzan jar ez dadin desgaitasuna duten pertsonen osasun baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubide bera dutela, baita osasun alarmako testuinguru batean ere?
- Nola eraldatu behar litzateke desgaitasuna eragin dezaketen gaixotasunen osasun arreta, osasuna kaltetzen duen etenaldirik edo atzerapenik gerta ez dadin?
- Desgaitasuna eragin dezaketen gaixotasunen ikerketa bultzatu beharko litzateke, Covid-19rekin egin den modu erabakigarrian?

4. EREMUA

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN PARTE- HARTZEA

Krisiaren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonen bizitzarako eta eskubideetarako oso garrantzitsuak diren erabakiak hartu behar izan dira, eta desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartu gabe egin da, berari ikusezintasuna bultzatuz.

Iraganari begirada: Zer gertatu da krisian?

Zer gabezia eman dira desgaitasuna duten pertsonak beren bizitzari eta eskubideei eragiten dieten erabakietan parte hartzeko duten eskubidean?

Etorkizunera begirada: Krisiak zer irakaspen utziko dizkigun

- Erabakietan parte hartzeko eskubidea onartuta izan arren, nola egin erakundeek ohiko praktika gisa barneratu dezaten?
- Nola egin gizarteak desgaitasuna duten pertsonak ikus ditzan, baina ez ikuspegi paternalista eta asistentzialista batekin, eskubide osoko herritar gisa ikusezin bihurtzen gaituena?
- Zer egin behar du elkarte mugimenduak desgaitasunen bat duten pertsonen erabakiak hartzeko orduan parte hartuko dutela bermatzeko?
- Nola egin erakundeek ez gaitzaten ikusi baliabideen erabiltzaile huts gisa, baizik eta beharrak dituzten herritar gisa, desgaitasunetik haratago?
- Nola egin behar da nahitaezko distantzia soziala isolamendu sozial eta bakardade bihur ez dadin?

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE-
HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

5. EREMUA

IRISGARRITASUNA ETA LAGUNTZA PRODUKTUAK

Krisiak irisgarritasun unibertsalaren ginetik sustapen ekonomikoa lehenetsi duten erabakiak ekarri ditu, eta agerian geratu da desgaitasuna duten pertsonen etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko beharra dutela.

Iraganari begirada: Zer gertatu da krisian?

Zer eskubide urratu dira edo zer gabezia izan dira irisgarritasun unibertsala eta laguntza produktuen esparruan?

Etorkizunera begirada: Krisiak zer irakaspem utziko dizkigun

- Nola diseinatu beharko lirateke etxebizitzak desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuten dietela bermatzeko?
- Zer neurri hartu beharko lirateke irisgarritasuna eskubide bat izatetik egitate bihur dadin?
- Nola berma liteke desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonalerako beharrezkoak diren laguntza produktuak izatea?

Jarraian, parte-hartze Tailerrean aztertutako gaien inguruan aterako ondorio nagusiak laburtzen dira, baita egindako ekarpenak ere.

1. EREMUA

ETXEAN ARRETA EMATEKO EREDUA

- 2018an mendekotasun prestazioen zenbatekoak murrizteko erabakia hartu zen. Pandemia garaian, familiek zaintzan hartu dituzten erantzukizunak kontuan hartuta, murrizketa horiek berrikusi behar ziren. Zaintzaren alorrean, Foru Aldundia munta handiko egitasmoei begira dago, eta garrantzitsuak diren "gauza txikiak" ahaztu egin ditu.
- Zaintzaileei jasotzen dituzten ikastaroetako edukiak eguneratu behar dira, moldatu. Inpresioa daukat, askotan, norberaren kexuak plazaratzeko foro moduko bat bihurtu direla. Gainera, sarritan, formazioa jasotzera doazen pertsonak ikastaroa ematen dutenek baino esperientzia praktiko gehiago dute.
- Administrazio ezberdinak harremanetan jarri dira adineko pertsonekin, baina ez dute gauza bera egin Bizimodu Independente programan daudenekin. Horrez gain, beste egoera batzuetan (mendekotasun egoeran dauden pertsonen ebaluazioa, prestazioen jarraipena, etxebizitza egokitzeko aholkularitza, eta abar) administrazioetako langileak etxeetara joan diren bezala, oraingoan, beharra zegoenean, telefono deirik ere ez dute egin.
- Laguntzaile pertsonalak kontratatzeke baldintzak malgutu behar dira; kontratazioak errazteko baliabiderik ez dago.
- Krisian zehar, batez ere hasieran, segurtasun neurririk ez zegoenean, laguntzaile pertsonalak zituzten pertsonak babesik gabe geratu dira. Beste baliabide batzuekin alderatuta, eskaintako denbora eta ahalegina urriagoa izan da. Desgaitasuna duten pertsonak hartu behar izan dute ardura guztia.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

- Administrazioak laguntzaile pertsonalak kontratatzeko erraztasunak jarri behar ditu, horren beharra nabarmen ikusi da. Laguntzaile pertsonalik gabe, gertuko pertsonengana edo elkarteetara jo behar duzu laguntza eske. Laguntzaile pertsonalaren figura ez da behar bezala baloratzen.
- Zaintzailearen lana, eta sektorea orokorrean, ez da behar bezala aitortzen; nagusiki, emakumeak aritzen dira lan horietan, eta oso baldintza prekarioetan. Zaintza lana duindu behar da, bai administrazioaren aldetik eta baita gizartearen aldetik ere.
- Laguntzaile pertsonalen ordezkapenak egiteko zailtasunak daude, eta horretaz gain, gailuzko bat dago, esate baterako, oporraldietan. Sistema malgutu behar da, eta sortzen diren egoera guztiei erantzuna emango dion sistema sustatu.
- Zuzeneko prestazioek desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta erabakitze askatasuna areagotzen dute. Edozein kasutan, sistemaren malgutzea beharrezkoa da pertsona bakoitzaren egoera eta beharretara egokitzeko. Desgaitasuna duten pertsonak erabaki behar dute zerbitzu edo prestazio zuzena nahi duten.
- Oso eskertuta gaude pandemia etxean pasatzeko aukera izan dugunok; gainontzeko pertsonen egoera berean gaudela sentitu dugu.

▼Instituzioek bizkarra eman digute gure senideekin etxean bizi garen eta desgaitasuna dugun pertsonoi. Senitartekoen laguntza dugunez, haien (instituzioak) ardurapean ez gaudela sentitzen dute.

- Pandemia egoeran, egoitzetako egoiliarak etxera bueltatu gara. Eta familiak izan dira desgaitasuna dugun pertsonon zaintzaz arduratu direnak, momentu oro. Egoera honetan, familiak ez dute gure zaintzaz arduratuko diren laguntzaile pertsonalak kontratatzeke diru-laguntzarik jaso.

- Bizimodu Independente ereduak autonomia ematen digu, eta pandemia egoeran, are gehiago.
- Modu independentean bizi izanak, deseskalatze fasean kalera ateratzeko eta gure ingurunearekin erlazionatzeko eskubidea eman digu.
- Pandemia egoeran sortu diren behar bereziei erantzuna emateko baliabideak malgutu dira, eta erabakia txalotzen dugu. Esate baterako, etxez etxeko laguntza zerbitzuan aurreikusi gabeko zerbitzuak eman dira, egoera honetan oso beharrezkoak: erosketak egiteko, botikak jasotzeko, eta abar.
- Gizarteak, orokorrean, ez gaitu pertsona autonomo bezala ikusten, ez gaitu gure erabakiak hartzeko gai ikusten. Haien begietan, desgaitasuna dugun pertsonak gara, laguntza behar dugun pertsonak.
- Pandemia garaian, laguntzaile pertsonalak beldurrez antzeman ditugu, zaintza lenean bere ardurapean gauden pertsonak kutsatzeko beldurrarekin.
- Desgaitasuna duten zenbait pertsonak rol bikoitza izan dute: batetik, zainduak izan dira; eta bestetik, senideak zaintzea egokitu zaie. Administrazioak, ordea, zaintzaile lana ez du aitortzen.
- Errehabilitazio zentro espezializatuetara joateko laguntza mugatu zaigu, eta muga honek ondorio negatiboak ekarriko ditu desgaitasuna duten pertsonen osasunean eta autonomian.
- Bizimodu Independente ereduak sustatu behar da, eta pertsona guztiei aukera hori eman, ez gutxi batzuei.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

2. EREMUA

EGOITZA ARRETAREN EREDUA

- Egoitza zentroetako egoiliarrek ez zuten ulertzen senideak zergatik ez ziren bisitan joaten, eta abandonatuak sentitu dira. Egoera honek, egoiliarren egonezina areagotu du.
- Baliabide teknologikoak menperatu gabe, edo baliabide teknologikorik gabe, egoitza kanpoko pertsonekin harremana eten egin da, bakardade sentsazioa areagotuz.
- Irteerak galarazi dira; ez dago nahikoa langile irteerak modu seguruan egiten direla kudeatzeko.
- Egoitzetako kudeaketaren pribatizazioak ondorio negatiboak izan ditu egoiliarren eskubide eta ongizatean.
- Egoitza ereduaren aurrean, Bizimodu Independente eredia sustatu behar da. Baina momentuz egoitza eredia indarrean dagoenez, eta epe laburrean ez denez desagertuko, berrantolatu eta Eskandinaviako edo Alemaniako ereduak jarraitu behar dira. Hau da, egoitza txikiagoak eta tokian tokiko langileak.
- Egoitza zentroetako arduradunek erabiltzaileen iritziak eta nahiak kontuan hartu beharko lituzkete; zentroak, publikoak eta gardenak behar dute izan.
- Egoitza zentroetan, ahal den neurrian, laguntza produktu gehiago eta hobeak bermatu behar dira egoiliarren autonomia pertsonala areagotzeko.
- Egoitza zentroetan, erabiltzaileen intimitate eskubidea bermatzeko, banakako gelak jarri behar dira.
- Egoitza zentroetako egoiliarrak etxean baleude bezala sentitu behar dira, saiakera hori egin behar da. Eta noski, kalera ateratzeko autonomia bermatu behar zaie.

- Egoiliarrek, egoitza zentroetako ingurunea bere sentitu behar dute. Erabakiak bere kabuz hartu behar dituzte, horretara bideratu behar dira, eta laguntza behar dutenean, edo eskatzen dutenean, eman.
- Egoitza arretaren ereduak desgaitasuna duten pertsonen nortasuna neutralizatzen du; instituzioak erabakitzen du zer egin eta nola egin, eta erabiltzailearen iritzia ez da kontuan hartzen.
- Instituzionalizazio egoeran bizi garela esan daiteke. Zortzi hilabeteako itxialdia, horietako hiru erabatekoak. Beste bost hilabeteetan, eskubide murrizketak izan ditugu gainontzeko pertsonekin alderatuta. Egoitzaren arabera, irteerak luzeagoak edo laburragoak dira; zenbaitetan, ordubete eskas, eta egoitzatik aldendu gabe; beste batzuetan, goizean ordu eta erdiz eta arratsaldean bi orduz. Ez da nahikoa, egoera jasangaitza da.
- Egoitza gure etxea da, baina hasierako hiru hilabeteetan mugak izan ditugu: logetatik ezin atera, musukoa jantzita ibili, espazio komunak ezin erabili; orain, berriz, espazio horiek erabiltzeko musukoa derrigorrezkoa da. Gaua kanpoan pasatzen dugunean, egoitzara bueltatzean musukoa erabiltzera behartzen gaituzte, baita lo egiteko ere.
- Ezin dugu kanpora atera, debekatuta daukagu; baina ez da nahikoa baliabiderik jartzen birusa egoitzetara sar ez dadin.
- Bizi dugun egoera ez da justua, onartezina da; eskubideak murriztu dizkigute.
- Zaku berean sartu gaituzte desgaitasuna dugun pertsonak eta hirugarren adinekoak, eta ez gaude egoera berean, errealitatea ez da bera.
- Sozializatzea debekatu zaigu, ez digute kanpoko senide, lagun eta abarrekin erlazionatzen uzten. Erlazionatzeko edota harreman-sarea handitzeko aukerak murriztu zaizkigu.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

- Emozioen mundua ahaztu dute. Zaintza fisikoa beharrekoa da, baina emozionala ahaztu gabe.
- Agerian geratu da, berriro ere, egoitzek ez dituztela egoiliar guztien beharrak asetzen. Zerbitzuak egoiliar bakoitzaren beharren arabera antolatu behar dira.
- Pandemia egoerak agerian utzi du Bizimodu Independente eredua behar beharrezkoa dela.
- Egoitzak kartzela bihurtu dira.
- Ez dakigu zer nahiago dugun, birusak hiltzea edo penaz hiltzea. Bizirik lurperatu gaituzte.
- Segurtasun neurri gehiago behar dira.
- Berrogeialdia pasatzeko, bakarkako logelak egokitu behar dira.
- Kalera atera behar gara instituzionalizazio egoeran dauden pertsonen eskubideak defendatzera.

3. EREMUA

OSASUNA

- Aurrez aurreko kontsultak telefono kontsultengatik ordezkatu dituzte. Eta badirudi hori izango dela etorkizuneko joera. Epe luzera kaltegarria izango da zenbait gaixotasunentzako eta gaixotasunen jarraipen egokia egiteko.
- Medikuzko azterketen emaitzak ezagutzeko, ohiko bideetatik jasotzen ez genituenek, pasahitza telematikoak lortu behar izan ditugu, eta emaitzak Internet bidez ezagutu ditugu.
- Kontsultak jasotzeko metodologia ez da egokia. Telefonoz eskatzen ditugu, eta gero deia bueltatzen dute. Baina momentu horretan deia jasotzeko aukerarik ez baduzu, edozein arrazoi tarteko, kontsulta galtzeko arriskua daukazu.
- Komunikaziorako zailtasunak daudenean, telefonoa ez da sistemarik egokiena. Zortea izan dugu, eta erizainak bere telefono pertsonalaren zenbakia eman digu harremana wasap bidez bideratzeko. Baina ezin gara erizainen borondate onaren zain egon. Halako prozedurak protokolo ofizial batean jaso behar dira.
- Kontsultak bertan behera geratu dira.
- Beharrezkoak ez direla ulertu duten kasuetan, tratamenduak eta errehabilitazioak bertan behera utzi dituzte. Gaixotasun edo desgaitasun degeneratiboak pairatzen dituzten pertsonen kasuan, zerbitzua bertan behera uztea izugarriko atzera pausoa izan da.
- Osasungintzan egin dituzten murrizketen ondorioak pairatu ditugu pandemia egoeran.
- Desgaitasuna dugulako zenbait baliabideetatik kanpo uztea aztertzen ari dira, esate baterako, ZIUetatik kanpo. Ez da etikoa.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

- Triaje medikuan denak ez du balio. Irizpideak ezin du izan pertsonaren balioa edo gizarteari egiten zaion ekarpena. Hala eginez gero, desgaitasuna duen pertsonaren balioa ez da bera, eta ondorioz, baliabideak jasotzeko eskubide gutxiago du.
- Osasungintzak, zenbaitetan, oso modu finean aplikatzen du diskriminazioa.
- Zerbitzu hutsune hau eutanasia mota bat ez ote den zalantza daukat. Berrantolaketa, triajea... esaten diote, baliabide falta ezkutatzeko egiten dutela iruditzen zait.
- Baliabideak pertsona guztiontzat, baita desgaitasuna duten pertsonentzat ere. Hori da eskatu behar duguna. Ez dadila desgaitasuna irizpide bihurtu ZIUa bezalako zerbitzu bat erabiltzeko.
- Protokoloak argitzea exigitu behar da; desgaitasuna duen edo mendekotasun egoera dagoen pertsona bat kutsatzen denerako protokolo zehatzak behar dira.
- Osasun Zentroetako sarreretan itxaron-ilara amaigabeak sortzen dira.
- Medikamentuak atzeratu dira, pertsonen osasuna arriskuan jarriz.
- Osasun publikoaren egoera ikusita, zenbait pertsona pribatura joan da. Sistemaren hutsuneak agerian geratu dira.

4. EREMUA

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA

- Desgaitasuna duten pertsonen iritziak ez dira kontuan hartu, ezta ordezkatzeko dituzten elkarteak. Erabaki garrantzitsuak hartu dira, eta larriak, baina gure iritziak ezagutu gabe.
- Ikusezinak bihurtu para, eta gu ez gara horrela sentitzen.
- Gure egoera eta beharretara egokituko diren irtenbideak aurkituko genituzke, baldin eta gure iritzia eskatzen badute.
- Erabakiak hartu aurretik, gure iritzia kontuan hartzea exigitu behar dugu.
- **elkartuk** bozeramaile rola jokatu behar du instituzioen aurrean.
- Gobernantzaz eta parte-hartzeaz hitz egiten da, baina ez da praktikan jartzen.
- Kolektibo bezala ahaldundu behar dugu, eta desgaitasunaren esparruan hartzen diren erabaki-guneetan gure hitza aintzat hartzea exijitu. Gure eskubideak aldarrikatu behar ditugu.
- Erabaki-guneetan desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea bermatu behar da, hasierako momentutik.
- Desgaitasuna duten pertsonen senideekin hitz egiteko ohitura dago, eta ez desgaitasuna duten pertsonekin. Ez senideak ez zaintzaileak, desgaitasuna duten pertsonak jarri behar dira erdigunean.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

- Administrazioak erabakiak hartzen ditu, aldebakarreko erabakiak. Guk erabaki horien aurrean gure desadostasuna agertzen dugu, eta protesta baino egiten ez duen kolektibo gisa ikusten gaituzte.
- Desgaitasuna duten pertsonek kalea hartu behar dute, ahotsa altxa eta euren eskubideak defendatu. Horretarako, ordea, kolektibo osoaren inplikazioa beharrezkoa da.
- Gure iritziak ez dira aintzat hartzen. Argazkirako baino ez gaituzte nahi.

5. EREMUA

IRISGARRITASUNA ETA LAGUNTZA PRODUKTUAK

- Osasun krisi honestan etxebizitzak funtsezkoak bihurtu dira, eta agerian geratu da etxebizitza irisgarrien beharra.
- Zenbait sektore lehenetsi dira, eta haien alde hartu diren erabakiak desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunaren aurkakoak izan dira, esate baterako, tabernetako terrazak handitzea.
- Denda edo tabernetara sartu eta ateratzeko zailtasunak dauzkagu. Manparak jarri dituzte, espazioak banatu dira, eta guretzako espazioa murriztu da, mugitzeko zailtasunak zailduz.
- Sartu-irteeretan jarri diren pasabideak gure mugikortasuna zaildu dute.
- Tabernak, dendak... kalera atera dituzte eta mugitzeko zailtasuna areagotu zaigu.
- Komertzioak kalera atera dituzte: eskaintzak iragartzeko kartelak, arropa, eta abar. Espaloiak bete dira eta mugitzeko zailtasunak areagotu zaizkigu.
- Irisgarritasun zerbitzuak murriztu dira, esaterako, laguntza bainuak (baño asistido); hiru hilabetetik bira murriztu dute zerbitzua. Pandemia egoeran murrizketak izan ditugu gure beharretan, baita beste batzuetan ere.
- Kolektiboaren errealitatea gizarteratzeko beste batzuen ereduak jarraitu behar ditugu.
- Eguneroko zailtasunei egin dituzten moldaketak gaineratu behar zaizkie, eta gauzak ez dizkigute erraztu.
- Jarri dituzten gel hidroalkoholikoak gure beharrak kontuan hartu gabe jarri dira.

C) BERRAGERTZE FASEA: PARTE- HARTZE TAILERRA, "COVID-19 ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK"

GOGOETA GEHIAGO

- Abandonatuta sentitu gara. elkartutik gurekin harremanetan jarri dira; Foru Aldunditik eta udaletxeko Gizarte Zerbitzuetatik, ez.
- Egunerokoan arazoak baldin badaude (beharrak ez dira asetzen, baliabideak ez dira nahikoak...), pandemia egoerak ezaguna zaigun errealitate hori areagotu baino ez du egin.
- Lehenengo itxialdian, edo COVID-19aren lehenengo olatuan, eman zaigun erantzuna ez da nahikoa izan. Bigarren olatuan akats berdinak errepikatzea, eta hori larriagoa da.
- Gure beharrak ez zituzten kontuan hartu, eta orain ere ez dituzte aintzat hartu. Salbuespen egoera jarri da indarrean, eta halakoetan, galtzaile handienak izan ohi gara.
- Instituzioen arteko koordinazio falta erabatekoa izan da; ez zeuden prest, instituzio bakar bar ere ez. Udaletxeetan erregistro moduko bat jarri behar dute, beharrak identifikatzeko eta behar horiei erantzun egokia emateko. Funtsezkoa da. Instituzioen arteko koordinazioa hobetu beharra dago, hala nola instituzio eta desgaitasuna duten pertsonen interesak defendatzen dituzten elkarteen artekoa.
- Oinarrizkoa den zerbitzu orok, kasu honetan Gizarte Zerbitzuak, herritarrak artatzeko baliabideak jarri behar ditu, egoera edozein dela ere. Aurrez aurreko zerbitzua eskaini behar da, eta aukerarik ez badago, telefono bidezko arreta zerbitzua, eta ahalik eta denbora tarte laburrenean.
- Herritarrok, orokorrean, zailtasunak izan ditugu instituzioekin harremanak bideratzeko, eta zailtasuna areagotu egin da komunikatzeko zailtasunak

dituzten pertsonen artean. Harremana telefono bidez egin behar bada, gutxienez pertsona egokiarengana bideratu behar gaituzte. Sarritan gertatu zaigu telefonoz gure egoera azaltzen hasi, eta telefonoz beste aldera dagoenak ulertzen ez gaituelako deia etetea. Edo nahikoa denborarik ez dugu izan nahi genuen hori azaltzeko. Aurrez aurreko arretak arazo guzti horiek saihesten ditu, edo gutxienez, komunikazioa errazten digu.

- Teknologia berriak erabiltzeko arazoak edo ezagutza falta duten pertsonak zailtasunak izan dituzte. Zerbitzu asko online eman dira, eta zenbait pertsona zerbitzu horiek jaso gabe geratu da. Eten digitalak, wifia eskuratzeko zailtasunak edo ordenadorerik ez edukitzeak arazo hauek areagotu ditu.
- Instituzioei enpatia, konpromiso eta gertutasun gehiago eskatu behar zaie pertsonak artatzeko, are gehiago behar bereziak dituzten pertsonen kasuan.

D) GIZARTERATZE FASEA

Fase honek, **elkartuk** bideratu duen parte-hartze prozesuan jasotako balorazioak eta ondorioak gizarteratzeko aukera eman du. Horrela, pandemia egoerak sortutako osasun- eta gizarte-krisian gertatu diren eskubide urraketak ezagutarazi dira. Era berean, gizarte politikak eraldatzeko kontuan hartu beharreko ikasgaiak.

Aztertu diren esparruen inguruan ateratako ondorioak gizarteratzeko bost animazio sortu dira:





**BIZIMODU
INDEPENDIENTEA**

**Familiek
hartzen dute
bere gain
zaintza**

eta batez ere
**ARRETA EREDUA
ALDATZEA**



**EGOITZA
ARRETAREN
EREDUA**



SALUD

**Kolektibo
ikustezina**

**VIDA
INDEPENDIENTE**




**DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN
PARTEHARTZEA**



**IRISGARRITASUNA
ETA LAGUNTZA
PRODUKTUAK**

05

ONDORIOAK



elkartutik sustatu dugun parte-hartze prozesuak desgaitasun fisikoa duten pertsonen iritziak plazaratzeko aukera eman du kolektiboa ikusezin bihurtu den testuinguruan, eta kolektiboaren mesedetan, baina bere iritziak kontuan hartu gabe, munta handiko erabakiak hartzen ari diren garai honetan.

Prozesuak utzi duen ondorio nagusia da desgaitasuna duten pertsonen iritziak, eta ordezkatzeko dituzten kolektiboan, kontuan hartzeko bideak jarri behar direla, bermatu beharreko eskubidea dela. Hau da, instituzioek hartzen dituzten erabaki, neurri edo politika publikoak indarrean jarri aurretik, kolektiboaren ekarpenak aintzat hartu behar direla.

Pandemiak eragindako osasun-, giza- eta ekonomia-krisiaren testuinguru honetan, lankidetzagobernantza eredu sustraituaren gabezia agerian geratu da. Eta osasun-kolektiboaren defentsan hartu diren zenbait erabakik desgaitasuna duten pertsonen eskubideak urratu dituztela. Bestalde, mendekotasuna, hezkuntza, lan-mundua edota irisgarritasun unibertsala bezalako esparruetan ez dira urratsak eman kolektiboaren ongizatea hobetzeko.

Era berean, parte-hartze prozesuak utzi duen eta nabarmentzea merezi duen beste aldarrikapena bizimodu independente eredu sustatzeko beharra da. Horrela eskatu dute desgaitasuna duten pertsonak, eredu horren beharra ikusten dute norberak modu askean bere bizitza proiektua non, nola eta norekin garatu nahi duen ahalbideratzen duelako. Eredu horretan aurrera pausoak emateko, ordea, esparru ezberdinetan laguntzak bideratzea beharrezkoa da; hala nola, etxebizitzan, diru-sarrera duinak bermatzeko politikan, laguntza pertsonala edo laguntza produktuak jasotzeko prozeduretan. Pandemiak erakutsi du laguntza horiek beharrezkoak direla, gainontzean, desgaitasuna duten pertsonak familiaren eta dagokion instituzioaren uztarripetik ateratzeko mediorik ez dute izango.

Azken puntu horrek sortu du, hain zuzen, zalapartarik handiena. Oinarrizko eskubide urraketak jasan dituztela salatu eta kritikatu dute parte-hartzaileek; funtsezko eskubideak galdu dituzte, eta guztien artean aukera berdintasunarena jarri dute hizki larriz. Batez ere, instituzionalizazio egoeran dauden pertsonak pairatu dute, eta kolektibo ahulenetan ahulena izanik, neurri zorrotzenak aplikatu zaizkiela salatu dute. Ondorio guztiekin gainera: fisikoak, emozionalak, eta abar.

Finean, **elkartu**k desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea defendatu du, eta parte-hartze hori sustatzeko neurriak, batez ere gizarte esparruari edota marko politikoari badagokie. Gizarte inklusiboagoa lortzeko urratsak ematea bada helburua, aukera berdintasunean herritar oroaren eskubideak bermatu behar dira.



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad de Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politikako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales